Ez hutsik egin

ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Ekainean, atmosferako tenperatura bezala, eztabaida soziolinguistikoaren tenperatura ere zerotik (ikastolerook *huts* esaten genuen) oso gora ibili da. Hil amaieran, Enplegu Publikoaren Legearen erreforma onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eztabaidaren gakoa izanik lanpostu publikoetarako euskara eskakizuna legez bermatzea, orain arteko dekretuekin ez baita aski izan, tartean espainolistek epaitegietan jarritako salaketengatik. Gipuzkoako Ahaldun Nagusi ohi eta legebiltzarkide Markel Olano pozik azaldu da, "arazo bati konponbidea emango" omen diolako. Bada, ez, Olano jauna, ez; ohiko marketina egiten saiatuko zarete, baina dagoeneko ikusten hasiak gara lege berriaren hutsak.

Gipuzkoako Foru Aldundia da herri erakundeetatik aurreratuenetakoa euskararen erabileraren normalizazio prozesuan. Orain, ordea, lege berriaren irizpideak ezartzeari ekin dio eta, horren ondorioz, euren lanpostuetarako euskara eskakizuna dagoeneko lortua zuten zenbait langilek jakin dute sei urte atzeratuko dietela euskarako eskakizunaren betebeharra, derrigortasun data aspaldi igaroa zuten lanpostuak izanik ere (espainolezkoa ez, horrek bere horretan jarraitzen du lehen unetik bete beharrekoa izaten). GFAk huts egin die langile horiei, egindako ahalegina gutxietsi baitie, eta EAJk euskaldunoi, beste behin ere, iruzur egin digulako.

Aurrekoaz gain, Olanok aipatu du bere ustez euskararen biziberritze prozesua "elkarrekiko errespetuan" oinarrituko den "espazio zentral" baten beharrean dagoela. Hitz horiekin, euskaltzaleoi huts egin digu, hegemonia aitortzen ari baitzaie espainolistei, zeini eta euskaldunon gainean bazterkeria, nagusikeria eta erasoak lotsagabe praktikatzen ari diren horiei, haiekiko sumisio iraingarria erakusteaz gain. Abertzaleon arteko lankidetza estrategikoa bultzatu ordez euskaraz bizitzeko aukerak biderka ditzagun, atzera urratsak eragingo dituen lege hau irentsarazi nahi digu arinkeriaz, eta kalkulu elektoralistek eta beldur eszenikoek agindu dutela ezkutatuta.

Aitzitik, berriki, ELA sindikatuak adierazi du sektore hitzarmenak euskaraz negoziatuko dituela aurrerantzean, eta espainolistek ederki ulertu dute erabaki horren sakontasuna. Bide beretik, abertzaleok ere *ahobizi* jarrera landu beharko genuke, marketina eta otzankeria baztertuta. Euskarak iraungo badu, euskaldunok izango bagara, euskaraz bizitzea ez da aukera bat dagoeneko, exijentzia baizik. Gainerakoa euskaldunoi huts egitea litzateke. ●

Kortesia eta kolpeak

LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Ortografia idazketaren kortesia dela irakurri nion norbaiti. Manera onak. Eta badakigu, edukazioa gero eta gutxiago ageri da bazterrotan. Zer esanik ez, ortografia. Irakasleon begiek hemorragiak izaten dituzte ikasleen horroreak ikustean. Ez dakit zelan ez garen honezkero odolustu.

Zehatz eta maratz zuzenduz gero, *gertatzen jakena gertatzen jake*, eta 0,0 da emaitza. Zuzentzaile fin eta ekinek, baina, ei daukate errua, mania dietelako. Beste batzuek, otoika baxoa euskaraz egiteko, eta borroka egin behar. Paradoxak.

Eusko Jaurlaritzak ere ortografian kale egin duela begitantzen zait arrandiaz aurkeztutako *Jauzia Gara* ekinbidean. Uste dut *Jausiak Gara* jarri nahi ziotela, baina baten batek zeta eta esea nahastu zituela, teklatuan gertuegi daude eta.

Jausita gaudelako, edo hobeto esanda, jaurti dizkiguten boxeoko gantxoen kulpaz erorikoz eroriko gabiltzalako, KOra ailegatu barik.

Kortesia dela ortografia aitatu dut, baina ez dago gureganakorik. Queensberry markesaren arauak aplikatzen dituztelakoan, gerripeko ukabilkadak etengabeak dira.

Boxeolari zaharrak dirudigu, baina ez dugu toalla jaurtiko. ●